

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

60/2026 Foru Agindua, martxoaren 25koa. 2026an emakumeen kirola sustatzeko dirulaguntzak emateko deialdia onartzea

Arabako Lurralde Historikoan genero-arrakala nabarmena dago kirol federatuan: 2024an, emakumeen lizentziak gutzitzairen ehuneko 27,78 baino ez ziren. Gainera, emakumeak diziplinen artean banatuz gero, generoaren arabera bereizketa argia ikusten da; izan ere, federatutako pertsonen ehuneko 50 baino gehiago emakumeak diren kirolak «femeninotzat» jotzen direnak dira, edo halakotzat jotzen diren diziplinak dituztenak (atletismoa, gimnastika, hipika, boleibola eta neguko kirolak).

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu batekina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2024 Legegintzako Dekretuaren 3.6 artikulua jasotzen duen bezala, botere publikoek neurri espezifikoak eta aldi baterakoak hartu behar dituzte bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko desberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko. Zehazki, 28. artikulua arabera, EAEko administrazio publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeen eta gizonen tratua eta aukera-berdintasuna bermatzeko kirol-modalitate guztietan, aisialdikoetan zein lehiaketakoe-tan, EAEn egiten diren praktika eta jardueretan. Era berean, emakumeak gehiengo diren kirol-modalitateentzako laguntza publikoak bermatu behar dira.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2024 Legearen 2. artikulua egungo idazketak ezartzen duenez, administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, politika bat ezarriko dute, emakumeak kirol-praktikan maila guztietan eta diskriminaziorik gabe erabat integratzeko baldintzak sustatzeko. Horregatik, kirolaren eremuan dagoen genero-arrakala irauten duen bitartean, beharrezkoa da ekintza positiboak bultzatzea, eskubide hori gauzatzean berdintasuna lortzen laguntzeko.

Horregatik, Kultura eta Kirol sailak diruz lagunduko ditu arabako erakundeei emakumeen kirola sustatzeko.

Arabako Foru Aldundiak, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren bidez (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zenbakia.) eta haren ondorengo aldaketen bidez, oinarri orokor arautzaileak onartu zituen, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan norgehiagoka-araubidean ematen diren dirulaguntzei aplikatzeko.

Kirol zerbitzuko buruak egindako txostena ikusita.

Horren ondorioz, dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea 2026an emakumeen kirola sustatzeko dirulaguntzak emateko deialdia. Deialdia ebazpen honekin batera erantsita doa.

Bigarrena. Deialdian eskatzen diren agirien ereduak onartzea, foru agindu honen I., II. eta III. eranskinetan jasota daudenak.

Hirugarrena. Deialdi hori Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan aurreikusitakoaren arabera arautuko da (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zenbakia.). Dekretu horren bidez, onartu ziren Kultura eta Kirol Departamentuaren eskumenen esparruan lehia-araubidean ematen diren dirulaguntzei.

Laugarrena Laguntza horiek Arabako Foru Aldundiaren 2026ko Gastuen Aurrekontuko 70201. G/341700/48100715 "Emakumeen Kirolerako Laguntza" aurrekontu-partidaren kontura ordainduko dira, eta 30.000,00 euro emango dira gehienez.

Bostgarrena. Organo eskudunak, Kirol Zerbitzuaren proposamena ikusita, dagokion ebazpena emango du, deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere sei hilabeteko epean. Gehienezko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, erakunde interesdunek eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango dute.

Seigarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43. artikuluan aurreikusitako moduan banaka jakinaraziko zaie eskatzaileei.

Zazpigarrena. Deialdi hau ALHAOean argitaratzea.

Zortzigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Dena dela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakiok eman zuen organoaren aurrean, hilabeteko epean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakiok bi hilabeteko epean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 25a

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
ANA MARÍA DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria
JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN

ERANSKINA**EMAKUMEEN KIROLA SUSTATZEKO 2026RAKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA****1. artikulua. Xedea, helburua eta dirulaguntza emateko prozedura**

Deialdiaren xedea da dirulaguntzak ematea, norgehiagoka bidez, indarrean dagoen eskola kirolaren kanpainan izena emanda dauden irabazteko xederik gabeko erakundeei, eta Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean kokatutako beste kirol erakunde batzuei, 2026an emakumeen kirola garatzen laguntzeko helburua badute.

2. artikulua. Aurrekontu egozpena

Dirulaguntzen zenbateko osoa ezin izango da inolaz ere izan helburu horretara bideratu den zuzkidura baino handiagoa, hau da, 30.000,00 euro baino gehiago. Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2025eko Aurrekontuko "Emakumeen kirolerako laguntza" izeneko 70201. G/341700/48100715 partidaren kontura ordainduko da.

3. artikulua. Erakunde onuradunak eta kanpoan utzitakoak**1. Hauexek izango dira erakunde onuradunak:**

– Egoitza soziala Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean duten eta kasuan kasuko Kirol Erakundeen Erregistroan behar bezala izenda emanda dauden Arabako kirol klub, talde eta federazioak.

– Egoitza soziala Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean duten eta indarrean dagoen eskola kiroleko programan alta emanda dauden irabazteko xederik gabeko erakundeak.

2. Hauek ez dira onuradun izango:

– Ez dira onuradun izango Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorrak onetsi zituen Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren oinarrian eta haren aldaketetan jasotzen diren baztertzeko egoeretan dauden erakundeak.

– Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren 2026ko ekitaldirako aurrekontuan partida izendun propioa duten entitateak edo Kirolaraba Fundazioarekin edo Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailarekin publizitate babesletza dutenak, dirulaguntzaren helburuarekin bat egiten badute.

4. artikulua. Laguntza jaso dezaketen jarduketak eta diruz lagundu daitezkeen gastuak

1. Diruz laguntzeko modukoak izango dira 2025eko uztailaren 1etik 2026ko ekainaren 30era bitartean (biak barne) egindako programak edo jarduerak. Programa honetan honako jarduera hauek lagunduko dira:

a) Solasaldiak, hitzaldiak, lehiaketak, ate irekiko jardunaldiak, informazio eta sentsibilizazio kanpainak eta antzeko beste batzuk, emakumeen kirol jarduera sustatzeko Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean. Ekitaldi horiek kirola hasteko, fidelizatzeko eta ikusarazteko izango dira, batez ere emakumeena.

Proposamen bakoitzak gutxienez ordubeteko jarduera izan behar du, eta horri kirola egiteko denbora gehiago gehitu dakioke, bai eta jardueraren osagarri ere, emakumeak kirolean aritzea sustatzen duten elementuak eman edo banatu (emakumezko jokalarien argazki eskainiak, posterrak, horma irudiak, emakumeen kirol lehiaketetarako sarrerak eta antzeko jarduerak).

b) Eskola adineko kirolaren esparruan, eskola kiroleko programatik kanpoko jarduerak, neska eta mutil nerabeak eskolako, aisialdiko eta/edo federatutako kirol jardueran sar daitezkeen bultzatzeko helburu espezifikoak badute, hala nola ate irekiko jardunaldiak, kirol jaiak edo jolas jarduerak. Jarduerak puntualak izan beharko dute, edozein pertsonak edo erakundek parte hartzeko modukoak, eta Arabako Foru Aldundiaren kasuan kasuko baimena izan beharko dute eskola kiroleko programatik kanpoko jarduerak garatzeko.

Proposamen bakoitzak lau saio izan beharko ditu gehienez, eta kanpoan geratuko dira modalitate bereko beste erakunde batzuetako kirolariak erakartzea helburu duten jarduerak.

Gutxienez, jarduera horietako parte-hartzaileen ehuneko 50 ez dira erakundekoak izango jarduera horiek egiten diren unean.

c) Emakumeen kirola sustatzeko txapelketak, erakustaldiak edo jarduerak.

Baldintza hauetakoren bat bete beharko da b eta c apartatuetako jardueretan:

– Emakumeak protagonista izatea; halakotzat hartuko dira parte hartzea emakumeentzat mugatuta duten kirol jarduerak edo emakumeen parte hartzea gehiengo den kirol jarduerak.

– Emakumezkoen parte hartzea sustatzea; betekizun hori betetzat emango da, baldin eta beren deialdietan eta publizitatean, emakumezkoek parte har dezaten, dei berezia eta adierazgarria egiten bada. Kasu horretan, gainera, eskatuko da jarduera horrek emakumeen ikusgarritasuna eta aintzatespen soziala sustatzea, edo genero estereotipoen haustura bultzatzea, emakumeek tradizioz gizonen parte hartzeari lotuta izan diren eremuetan parte hartzearen bidez. Horrelako jardueretan, emakumeen parte hartzea sustatzeko erabilitako elementuek eragindako aparteko gastuak baino ez dira zenbatuko.

2. Kanpoan geratzen dira:

– Erakunde eskatzaileetako bazkideei soilik zuzendutako jarduerak.

– Lehiaketa ofizial guztiak, bai eta liga erregularreko lehiaketak edo edozein federazioren egutegi ofizialetan sartutakoak ere.

– Arabako Lurralde Historikoan indarrean dagoen eskola kiroleko kanpainan sartutako jarduerak.

– Eskola kiroleko programatik kanpoko jarduerak, baldin eta eskola kiroleko programarekiko lehiaketa paraleloak izan badaitezke.

– Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren beste deialdi batzuetan diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

3. Programa edo jarduera berean diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta diruz lagundu ezin direnak sartzan badira, egoera hori eskaeran zehaztu beharko da. Diruz lagundu daitezkeen jarduerarako gastu konputagarriak baino ez dira sartu beharko eskaeran. Bi jarduera mota horietarako gastu komunak kasuan, diruz lagundutako jarduerari proportzionalki dagozkion zenbatekoak soilik sartu beharko dira eskaeran.

4. 2025eko uztailaren 1a eta 2026ko ekainaren 30a bitartean eginiko gastua diruz lagundu ahal izango da, baldin eta inolako zalantzarik gabe diruz lagundutako jarduera edo proiektuaren izaerarekin bat etorri eta behar-beharrezkoa bada.

5. Diruz lagundu daitezkeen kontzeptutzat joko dira, 8.3.a apartatuko puntuak kalkulatzeko soilik, diruz lagundutako jarduerari dagozkienak, honako kontzeptu hauei dagozkienez:

a) Arbitraje taldeko langileak, haien joan-etorriak barne.

b) Entrenatzaileen, kirol monitoreen, laguntzaileen eta jarduera egiteko beharrezkoak diren gainerako langileen gastuak.

c) Kanona, trafikoko tasak eta aplikagarri diren gainerako tasak, abalak ez.

d) Laguntza medikoaren, osasun azterketen, ambulantiaren, salbamenduaren, albaitaritzaren, ferratzaileen, irrati loturen, dopinaren aurkako kontrolaren eta abarren gastuak, zeinak guztiak baitira jarduerarako espezifikoak.

e) Jardueran parte hartzen duten langileen joan-etorriak garraio kolektiboan (jokalariak, entrenatzaileak eta ordezkariak). Kanpoan geratzen dira gainerako joan-etorriak.

f) Jarduerarako behar den eta hari egotzi ahal zaion material suntsikorra eta erregaia alokatu edo erostea.

g) Dirulaguntzaren xede diren jarduerak garatzeko berariazko kirol material, ekipo eta instalazio ez-suntsikorrek alokatzea edo erostea.

h) Jarduerarako berariazko aseguruak.

i) Materiala eramatea eta muntatzea.

j) Megafonia alokatzea eta lokuzioa.

k) Kartelak (diseinua, inprimaketa, banaketa, fotolitoak eta gainerako inprimaketa prozedurak) eta publizitatea komunikabideetan.

l) Antolaketa eta zuzendaritza teknikoko gastuak.

m) Zeharkako gastuak, artikuluko honen 7. apartatuan ezarritakoaren arabera.

6. Aurreko atalean diruz lagun daitezkeen kontzeptuei dagozkien langile gastuetan (arbitrajeak izan ezik), jarduerarako berariaz kontratatutako langileen gastuak bakarrik hartuko dira kontuan, dela erakunde eskatzailearekin egindako lan kontratuaren bidez, dela jarduera horretan espezializatutako enpresen eta/edo profesionalen bidez kanpoan kontratatuta. Bigarren kasu horretan, kanpoan geratzen dira federazioek, klubek, kirol elkarteek eta antzeko ezaugarriak dituzten irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuek egindako kontratazioak.

7. Zeharkako gastutzat joko da diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontuaren ehuneko 15era arte, eta kostu horiek jarduera programa benetan egiten den aldiari badagozkio. Hori guztia Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 83.3 artikuluan araututakoaren arabera.

Zeharkako gastutzat jotzen dira programaren jarduera gauzatzearekin zuzenean lotuta ez daudenak, baina hura kudeatzeko eta administratzeko beharrezkotzat jotzen direnak (adibidez, kontsumo elektrikoa, telefonoa, antolakuntzako eta zuzendaritza teknikoko langileak, egiturako beste langile batzuk, etab.). Justifikazioan ez da beharrezkoa izango zeharkako gastuen fakturak eta ordainagiriak aurkeztea, baina zehatz-mehatz adierazi behar da gastu bakoitzari dagokion zenbatekoa justifikazio kontuan (II. eranskina).

Erakundeko bertako langileei edo kirol instalazio batera bideratutako gastuei zuzeneko kostu gisa eman dakieke dirulaguntza, baldin eta gastuaren eta proiektuaren helburuen artean lotura argia badago, eta programa gauzatzeko soilik erabiltzen bada. Bestela, zeharkako kostu gisa baino ez dira diruz lagunduko.

8. Emakumeek parte hartzeko deialdi espezifiko eta esanguratsua egiten den jardueren kasuan, parte hartze hori ez bada soilik edo nagusiki emakumezkoena, ez dira zenbatuko erakundeak jarduera antolatzeke izan ditzakeen gastu arruntak. Emakumeen parte hartzea sustatzeko egindako ekintzek edo erabilitako elementuek eragindako aparteko gastuak baino ez dira zenbatuko.

9. Honako gastu hauek ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat joko, puntuazio baremoaren arabera laguntzaren kalkulua egiteko; aldiz, konputagarriak izango dira jardueraren guztirako gastuak zenbatzeko:

a) Entrenamendurako eta/edo lehiaketetarako ekipamenduak, hala nola kamisetak, kulotak, kirol jertseak, txandalak, bainu jantziak, kimonoak eta antzeko ezaugarriak dituzten gainerako materialak, baita norberak erabiltzeko materialak ere, hala nola barrabil babesak, hortz babesak, betaurrekoak, puntak, kaskoak eta antzeko ezaugarriak dituzten gainerako elementuak.

b) Parte hartzaileentzako opariak (elastikoak, kirol jertseak, dominak, oroigarriak eta antzekoen gastuak, eta halakoak inprimatu edo grabatzearen gastuak).

c) Ordezkaritza, protokolo eta antzeko beste ekintza batzuen gastuak.

- d) Kirolariak kontratatzea (ordainsariak, dietak eta antzeko gastuak).
 - e) Instalazioak mantentzearen dietak edo ordainsariak.
 - f) Ez dira kontuan hartuko kirolarien, entrenatzaileen eta ordezkarien (jardueran sartzen ez direnak), zuzendarien, senideen eta ikusleen joan-etorriak.
 - g) Jarduera egiteko beharrezkoak eta egozgarriak diren instalazioak prestatzeko edo egokitzeko gastuak.
 - h) Garaikurrak.
 - i) Parte hartzaileentzako sariak eskudirutan, parte hartzaileentzako sariak "gauzak" eta antzeko beste batzuk.
 - j) Ikuztegi gastuak.
 - k) Bulegoko materiala, fotokopiak, material informatikoa, posta, etab.
 - l) Kultura edo animazio jarduerak.
 - m) Instalazioak eta/edo materiala zaintzeko eta kontrolatzeko gastuak.
 - n) Erakundearen egoitza, lokala edo bulegoa.
 - ñ) Proban parte hartzen duten pertsonentzako ostatu gastuak.
- Zeharkako zergak, berreskuratutako edo konpentsatu ahal badira, inoiz ere ez dira izango diruz laguntzeko moduko gastuak.

5. artikulua. Eskaerak aurkeztea

1. Erakunde bakoitzak eskaera bakar bat aurkez dezake. Eskatzaile batek eskaera bat baino gehiago egiten baditu, azkena hartuko da kontuan, eta gainerakoak ofizioz itxiko dira. Itxi diren eskabideetan aurkeztutako datuak eta dokumentuak ez dira kontuan hartuko.

2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek daude behartuta aurkezpen telematikoa egitera: pertsona juridikoak; nortasun juridikorik gabeko erakundeak; diharduten jarduera profesionalean jarduteko elkargo bateko kide izan behar dutenak, jarduera hori dela-eta egin behar dituzten izapideetarako; eta Administrazioarekiko harreman elektronikoa izatera behartuta dagoen interesdun baten ordezkariak. Horiek horrela, egoitza elektronikoaren bidez eskura daitekeen izapide espezifikoen bidez soilik formalizatuko dira eskaerak: <https://egoitza.araba.eus/es/-/emakume-federatuen-kirolari-laguntzeko-dirulaguntzak>.

3. Eskaerekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, eskaeretan jasotako informazioa eta agiriak benetakoak direla adierazteko, eta beste betebeharrak batzuk betetzen direla ere jasoko da.

4. Eskaerak, hala, ez badituzte betetzen adierazitako betekizun horiek, Kultura eta Kirol Sailak erakunde interesdunei hamar egun emango dizkie akatsak zuzendu edo behar diren agiriak aurkezteko. Hala egin ezean, eskaera artxibatu egingo da, eta interesdunak egindako eskaera bertan behera geratuko da. Nolanahi ere, Kultura eta Kirol Sailak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertu eta ebaluatzeko.

6. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

1. Trebiñuko enklabearen kokatutako erakundeek kasuan kasuko autonomia erkidegoko erregistroko inskripzio ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

2. Aplikatzekoa den araudiaren arabera, instrukzio organoak administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasunaren bidez egingo ditu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriei buruzko kontsultak eta egiaztapenak, salbu eta entitate eskatzaileek edo onuradunek horren aurka egiten badute. Ofizioz egiaztatzeari uko eginez

gero, entitate eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du. Gainera, teknologiaren garapenak Estatuko beste ogasun batzuekiko elkarreragingarritasuna ahalbidetzen ez duen bitartean, zergak euskal foru ogasunak ez diren beste ogasun batean ordaintzen dituzten entitate eskatzaileek ogasun horrekiko betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

3. Deialdi honen 8.3b artikuluan jasotako irizpideren bat betetzen duten erakundeek kasuan irizpide horien bidez, faktore zuzentzaileak aplikatzen dira berdintasuna, euskara eta ekitatea sustatzeko kirol erakundeak, honako hauek egiaztatzen dituzten agiriak erantsi beharko dira:

– Berdintasun, euskara eta/edo ekitate planei dagokienez, honako bi agiri hauek erantsi beharko dira:

- Hainbat urtetarako plana.

- Planaren lehen urtea ez den kasuetan: 2025ean edo 2025-2026 denboraldian garatutako ekintzak eta lortutako emaitzak jasotzen dituen planaren memoria.

– Euskara sustatzeko konpromisoaren kasuan, erakundeak euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketari lotutako indarreko ziurtagiri baten bidez ere egiaztatu ahal izango da (Bikain, Harrobi, Bai Euskarari).

– Inklusio/ekitatearekiko konpromisoaren kasuan, entitatearen estatutuen bidez ere egiaztatu ahal izango da, non jasota geratuko baita haren helburu nagusia dela desabantailan, diskriminazioan, zaurgarritasunean edo baztertuta dauden pertsonak edo kolektiboak kirol jardueretan edo jarduera fisikoetan sartzeari edo kirolean edo kirolaren bidez gizarteratzea. Estatuok alde aurretik aurkeztu badira, ez da berriro egin beharrik izango.

– Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza espezifikoki dagokionez:

- 2025ean edo 2026an gutxienez 12 orduko prestakuntza egin eta gaitasunaren ziurtagiria:

- Erregistroaren ziurtagiria, pertsona erakundearen zuzendaritza batzordeko kidea dela egiaztatzeko, edo lan kontratua, erakundeko langileen kasuan.

Euskaliten “kudeaketa aurreratuko diploma”ren kasuan, hala badagokio, ez da beharrezkoa izango egiaztatzea, Arabako Foru Aldundiak zuzenean egiaztatu baitezake indarrean dagoen.

4. Kirol elkarteek erakunde nagusiaren organo eskudunaren berriazko erabakia aurkeztu beharko dute, zeinaren bidez elkartea sortu eta haren funtzionamendu arauak onartu baitziren, aurretik aurkeztu ez bada. Berriro ez aurkeztekotan, erakundeek adierazi beharko dute noiz eta zer administrazio organotan aurkeztu zituzten agiri horiek.

7. artikulua. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko 15 egun baliouduneko epea izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

8. artikulua. Prozeduraren instrukzioa eta balioespen irizpideak

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua da espedientearen instrukziorako organo eskuduna.

2. Dirulaguntzak banatzeko puntuazioen sistema erabiliko da. Horretarako, eragiketa hau egingo da: 2. artikuluan zehaztutako zenbatekoa zati erakunde eskatzaileek artikuluan honen 3. apartatuan ezarritako irizpideen puntuazio baremoen arabera lortutako puntu guztien batura. Zatiketa horren emaitzak deialdiaren puntuaren balioa emango du. Erakunde eskatzaile bakoitzari eman beharrezko zenbatekoa honela kalkulatu da: puntuaren balioa bider erakunde bakoitzak irizpideen puntuazio baremoen arabera lortutako puntu kopurua.

3. Erakunde eskatzaile bakoitzaren puntuak apartatu honetako irizpideen puntuazio barmoen arabera ezarriko dira. “b”, “c”, “d”, “e” eta “f” letratan ezarritako faktore zuzentzailea aplikatuko zaio apartatu honetako “a” letran lortutako puntuazioari.

a. Diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontua:

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUEN AURREKONTUA	PUNTUAK
0,01 euro eta 1.000,00 euro artean	1
1.000,01 euro eta 2.000,00 euro artean	2
2.000,01 euro eta 3.000,00 euro artean	3
3.000,01 euro eta 4.000,00 euro artean	4
4.000,01 euro eta 5.000,00 euro artean	5
5.000,01 euro eta 6.000,00 euro artean	6
6.000,01 euro eta 7.000,00 euro artean	7
7.000,01 euro eta 8.000,00 euro artean	8
8.000,01 euro eta 9.000,00 euro artean	9
9.000,01 euro eta 10.000,00 euro artean	10
10.000,01 euro eta 11.000,00 euro artean	11
11.000,01 euro eta 12.000,00 euro artean	12
12.000,01 euro eta 13.000,00 euro artean	13
13.000,01 euro eta 14.000,00 euro artean	14
14.000,01 euro eta 15.000,00 euro artean	15
15.000,01 euro eta 16.000,00 euro artean	16
16.000,01 euro eta 17.000,00 euro artean	17
17.000,01 euro eta 18.000,00 euro artean	18
18.000,01 euro eta 19.000,00 euro artean	19
19.000,01 euro eta 20.000,00 euro artean	20
20.000,01 euro eta 21.000,00 euro artean	21
21.000,01 euro eta 22.000,00 euro artean	22
22.000,01 euro eta 23.000,00 euro artean	23
23.000,01 euro eta 24.000,00 euro artean	24
24.000,01 euro eta 25.000,00 euro artean	25
25.000,00 euro baino gehiago	30

b. Kirol jardunean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko konpromisoa, bai eta erakundeen kudeaketa hobetzeko eta kirolean euskara eta ekitatea sustatzeko konpromisoa ere.

Erakundeek beren egiturak hobetzeko eta berdintasunaren, euskararen eta ekitatearen aldeko politikak sustatzeko jarduketak gara ditzaten bultzatzeko premiaren ildotik, honako taula honetan ezarritako faktore zuzentzaileak aplikatuko dira, modu metagarrian:

EKINTZAK	FAKTORE ZUZENTZAILEA
1. Zuzendaritza Batzordea osatzen duten pertsonetako edo erakundeko langileetako baten batek, hala badagokio, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza espezifikoa egin eta gainditu izana, gutxienez 12 ordukoa, 2025ean edo 2026an	1,15
2. Erakundeak berdintasun plan bat izatea eta hura inplementatzen aritzea	1,15
3. Erakundeak euskara plan bat izatea eta hura inplementatzen aritzea edo erakundearen euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketari lotutako indarreko ziurtagiri bat izatea (Bikain, Harrobi, Bai Euskarari)	1,10
4. Entitateak izatea eta gauzatzen aritzea Inklusio/ekitatearekiko plana edo estatutuetan jasota izatea haren helburu nagusia dela desabantailan, diskriminazioan, zaugarritasunean edo baztertuta dauden pertsonak edo kolektiboak kirol jardueretan edo jarduera fisikoetan sartzeko edo kirolean edo kirolaren bidez gizarteratzea	1,10
5. Erakundeak Euskaliten “kudeaketa aurreratuko diploma” izatea bere egituraren funtzionamendua hobetzeko, eta diploma horren ziurtagiria indarrean izatea deialdi hau argitaratzen den egunean	1,15

2., 3. eta 4. tauletan aipatutako planen kasuan, kasuan kasuko faktore zuzentzailea aplikatu ahal izateko, honako baldintza hauek hartu behar dira kontuan:

- Planak indarrean egon behar dira deialdi hau argitaratzen den egunean.
- Planak hainbat urtetarakoak izan behar dira, eta, gutxienez, honako elementu hauek jaso beharko dituzte: helburuak, ekintzak eta denboralizazioa (ekintza bakoitzaren gauzatze-urtea).
- Planak jasotzen dituzten agiriak jatorrizkoak izan behar dira eta erakundeen banakako analisien emaitza.
- Dagokion planarekin batera, 2025ean edo 2025-2026 denboraldian garatutako ekintzen eta lortutako emaitzen memoria aurkeztu beharko da, salbu eta plana urte edo denboraldi horretan sortua bada.
- Planen eremuak (berdintasuna, euskara, ekitatea/inklusioa) plan bakar batean sartu ahal izango dira, betiere ardatz bereizia izanda. Kasu horretan, planean garatutako eremuen faktore zuzentzaileak metatuko dira.

c. Kirol jardueren hautaketa estereotipatu gabea sustatzea.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 28.6 artikulua arabera, administrazio publikoek kirol jarduerak estereotiporik gabe aukeratzea sustatu behar dute, bai eta emakumeen eta gizonen kirol jarduerak babestu ere, partaidetza minoritarioa duten modalitateetan. Artikulu horren ildotik, irizpide partikularren apartatua lortutako puntuazioa honako taula honetan adierazitako faktore zuzentzailearekin biderkatuko da. Faktore horrek emakumeen parte hartzea txikiagoa den kirol modalitateen alde egiten du, eta dagokion euskal federazioak 2025ean izapidetutako edo jaulkitako Arabako emakumeen federazio lizentzien datuetatik abiatuta zehaztuko da.

MODALITATEKO EMAKUMEEN LIZENTZIA FEDERATUEN EHUNEKOA	FAKTORE ZUZENTZAILEA
Ehuneko 0 eta ehuneko 25 artean	2
Ehuneko 25,01 eta ehuneko 50 artean	1,5

d. Kirol erakundearen egoitza.

Arabako Lurralde Historikoaren lurralde ezaugarri bereziak kontuan hartuta, eta egin behar dituzten aparteko gastuak ordaintzeko, egoitza soziala Vitoria-Gasteiz ez den beste udalerrri batean duten kirol klub eta elkarteek aurreko apartatua lortutako puntuazioa taula honetan ezarritako faktore zuzentzailearekin biderkatuko dute:

KLUBAREN EDO KIROL ELKARTEAREN EGOITZA	FAKTORE ZUZENTZAILEA
Sozietatearen egoitza Vitoria-Gasteiz ez den beste udalerrri batean izatea	1,15

Faktore zuzentzaile hori aplikatu ahal izateko, diruz lagundu daitekeen jarduera Vitoria-Gasteiz ez den beste udalerrri batean egin behar da.

e. Arloarteko ikuspegia.

Jarduera bakoitzak aurreko apartatua oinarrituta lortutako puntuazioa taula honetan adierazitako faktore zuzentzailearekin biderkatu ahal izango da, baldin eta jarduerak Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina onartzen duena martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.8 artikuluan aipatzen den arloarteko ikuspegia badu.

ARLOARTEKO IKUSPEGIA	FAKTORE ZUZENTZAILEA
Jarduera horren helburua da kirolaren edo jarduera fisikoaren bidez diskriminazio anizkoitzari aurre egitea, eta emakumeen edo emakume taldeen oinarritzko eskubideak benetan baliatzen direla bermatzea, baldin eta diskriminazio egoerak eragin baditzakete, hala nola arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaiotza, desgaitasuna, adina, sexu orientazioa, genero identitatea, genero adierazpena, migrazio prozesua, errefuxiatu estatusa, kultura, landa jatorria, diskriminazio sozialeko egoera, seropositiboa izatea, guraso bakarreko familia, familia konfigurazioa edo beste edozein egoera edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratibo	1,15

Jarduerak arloarteko ikuspegi hori badu, inguruabar hori eskaeran adierazi eta justifikatu beharko da, inprimakiko dagokion atalean.

f. Dirulaguntza jaso den azken ekitaldian diruz lagundutako jardueraren justifikazioa.

Azken ekitaldian erakundeak aurkeztutako justifikazioa baloratuko da, eta positiboki baloratuko da hasierako eskaeran sartutako gastu konputagarriak bat etortzea azkenean justifikazioan aurkeztutakoekin. Alderdi horri dagokionez, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

AURREKO EKITALDIKO JUSTIFIKAZIOA	FAKTORE ZUZENTZAILEA
Justifikazioaren ondoren, emandako zenbatekoaren ehuneko 100 ordaindu bazen, edo, kausa arrazoituengatik, ezin izan bazen diruz lagundutako jarduera gauzatu eta hari idatziz uko egin bazitzaion ekainaren 30a baino lehen, edo jarduerak ez bazuen dirulaguntzarik jaso	1,15

4. Aurreko apartatuan lortutako kopuruari honako muga hauek ezarriko zaizkio:

- Jardueraren guztizko gastuak ken jardueraren guztizko diru sarrerak eragiketarik ateratzen dena.
- Diruz lagundu daitezkeen gastuak.
- 10.000,00 euroko muga orokorra.

5. Muga horiek aplikatu ondoren, erakunde eskatzaile guztiek jaso beharreko zenbatekoaren batura deialdiaren zenbateko osoa baino txikiagoa bada, bigarren banaketa bat egingo da soberako zenbatekoarekin aurreko apartatuan ezarritako muga ekonomikoetara iritsi ez diren erakundeen artean.

Bigarren banaketa horretarako, soberako kopurua zatituko da aurreko atalean ezarritako muga batera ere iritsi ez diren erakundeen puntu kopuruarekin; horrela, puntuari dagokion bigarren balio bat lortuko da. Puntuaren bigarren balio hori biderkatu egingo da erakunde bakoitzari emandako puntu kopuruarekin. Horrela, bigarren banaketa horretan esleitu beharreko diru kopurua lortuko da, eta lehen banaketari gehituko zaio.

Soberakin ekonomikorik badago, aurreko paragrafoan deskribatutako eragiketa errepikatuko da, harik eta deialdi honen gehieneko kopurura iritsi arte, edo erakunde guztiak aurreko apartatuko mugaren batera iritsi arte.

9. artikulua. Ebazpena

1. Balioespen batzorde batek aztertuko ditu eskaerak, eta batzorde hori eratzeko, kontuan hartuko da Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.10. artikulua. Honako hauek osatuko dute batzordea:

- Lehendakaria: Kirol zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona.
- Batzordekideak: Kirol Zerbitzuaren burua, edo hark eskuordetutako pertsona, eta zerbitzu horri atxikitako bi teknikari.

— Idazkaria: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetutako pertsona; hitza izango du, baina botorik ez.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera alderatu ondoren, balioespen batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz, eta, beharrezkoa bada, eskaeren arteko lehentasuna ezarriko du.

2. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

3. Kirol Zerbitzuaren proposamena aztertu ondoren, organo eskudunak bidezko ebazpena emango du; horretarako, gehienez ere, sei hilabeteko epea izango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik. Gehieneko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, erakunde interesdunek eskaera ezetsi egin dela ulertu ahal izango dute.

4. Dirulaguntza emateko ebazpenean, honako hauek jaso beharko dira: zein erakunde eskatzaileari emango zaien dirulaguntza, gainerako eskaeren berariazko ezespena, ordaintzeko modua, eraginpeko programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta dirulaguntza emateko baldintzak.

5. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakunde eskatzaileei, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 43. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

10. artikulua. Emandako dirulaguntzak justifikatzea eta ordaintzea

1. Erakunde onuradunak justifikazioa aurkeztu ondoren ordainduko da dirulaguntza. Justifikazioa laguntzaren xede den jarduera amaitutakoan egingo da, eta azken eguna 2025eko uztailaren 15a izango da, egun hori barne.

2. Agiriak telematikoki aurkeztu beharko da, nahitaez; horretarako, egoitza elektronikora jo beharko da, eta agiriak “Nire arlo pertsonala” atalaren bidez aurkeztu beharko dira, deialdiaren espediente espezifikoa, “Nire espedienteak” atalean.

3. Justifikazio kontu sinplifikatu baten bidez egingo da justifikazioa, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak onetsi zituen azaroaren 12ko 50/2019 Dekretuaren 11.3 oinarrian eta haren aldaketetan ezarritakoaren arabera. Justifikazio horretan, dokumentazio hau erantsiko da:

a. Deialdi honen I. eranskina. Jarduketa memoria, dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

Diruz lagundutako jardueren azken onuradun edo erabiltzaileei buruzko eta sexuaren arabera banakatutako informazioa jaso beharko du memoriak, emakumeen eta gizonen partaidetzan dauden aldeak ikusarazi ahal izateko, bai eta erakundearen titularrenak eta plantillarenak, eta, hala badagokio, dirulaguntzaren xede den zerbitzua emateko kontratatu den erakundearen plantillarenak ere.

b. Diruz lagundutako programaren edo jardueraren agiri grafikoak, argazkiak edo ikus-entzuzkoak (programak, iragarki kartelak, liburuxkak, argazkiak, bideoak edo antzekoak), zeinek lagunduko baitute egiaztatzen egin dela.

c. Deialdi honen II. eranskina (justifikazio kontu erraztua), deialdian ezarritako ereduaren eta artxibo motaren arabera. Bertan, erakundeak diruz lagundu daitekeen aldian izan dituen gastu, inbertsio eta diru sarrera guztiak jasoko dira.

Gastu eta inbertsioen zerrendari dagokionez, honako hauek adieraziko dira: hartzekoduna den pertsona fisikoa edo juridikoa, gastu agiriaren edo fakturaren zenbakia, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketaren data. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru sarrera eta dirulaguntza batzuen kasuan, zenbatekoa eta jatorria adierazi beharko da.

Justifikazio kontuaren lerro bakoitzean (II. eranskina) banakako gastu edo diru sarrera bakoitza erregistratuko da. Diruz lagundu daitekeen jarduerari soilik dagozkion faktura edo gastu agiri bakoitzaren gastuak jasoko dira, eta, beraz, faktura osoa edo haren ehuneko bat zenbatu ahal izango da.

d. Faktura edo gastu justifikazio agiriak, baldin eta, banaka edo batera, gastu kontzeptu bererako, eta hirugarren edo hornitzaile berarekin lotuta, 1.000,00 euroko kopurua (BEZa aparte) gainditzen badute. Aurkeztu beharreko fakturek edo egiaztagiriek artikuluko honetako 5. eta 6. apartatuetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, hurrenez hurren. .

e. 1.000,00 eurotik gorako gastuen ordainagiriak. Ordainagiri horiek artikuluko honen 6. apartatuetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, eta, hala badagokio, bertan adierazitako agiri gehigarriak erantsiko zaizkie.

f. 4.1 b) artikuluko jardueren kasuan, parte-hartzaileen zerrenda, kirol-erakundekoak diren ala ez adierazita.

g. Deialdi honen III. eranskina. Erantzukizunpeko adierazpena.

4. Gastuen fakturak edo frogagiriak onartuak izateko, jarraian adierazten diren baldintzak bete beharko dituzte. Nolanahi ere, laguntza jasoko duen erakundea laguntza eskatu duena izango da:

- Jaulkitzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Fakturaren zenbakia.

Orobat, ez dira onartuko justifikazio gastu gisa zerga araudia betetzen ez duten faktura edo ordainagiriak, PFEZaren (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) konturako atxikipenei dagokienez.

Erakundea Balio Erantsiaren gaineko Zergatik (BEZ) salbuetsita badago eta eskaeran ofiziozko egiaztapenaren aurka agertu bada, kasuan kasuko salbuespen egiaztapena aurkeztu beharko da.

5. Langile gastuak justifikatzeko, erakunde kontratatzailea izango da laguntzaren onuraduna, eta honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Langilearen lan kontratua, egin diren aldaketekin batera.
- Nominak. Haiek ESS/2098/2014 Aginduan ezarritako kontzeptuak islatu beharko dituzte, hau da, kotizazio oinarria eta langileak egindako atxikipen tasa islatu beharko dituzte, baita erakunde kontratatzaileak egindakoa ere. Nominan agertzen ez diren kontzeptuak ezin izango dira diruz laguntzeko moduko gastutzat jo.

– Aurkeztutako 110 hiruileko ereduak edo 190 ereduak, ordaindu izanaren egiaztagiriarekin batera, baldin eta eskaeran ofiziozko egiaztapenaren aurka egin badu.

6. Diruz lagundu daitezkeen gastuen ordainagirik, onartuak izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Bankuko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna.
- Fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

- Posta arruntez jasotako banku laburpenak.
- Kontu korronteen libreten kopia, mugimenduak ageri dituenak.
- Posta elektronikoz jasotako banku laburpen elektronikoak edo transferentzia agindu telematikoak.

– Erosketa tiketak, zenbatekoa ordainduta dagoela adierazten dutenak (merkataritza zentro mota, autobidea, bidaia txartelak, etab.), edo faktura jaulkitzen duen enpresaren zigilua duten fakturak, hura ordainduta dagoela adieraziz.

– Langileen ordainagiritarako, nominen ordainketa pilatua ere onartu ahalko da, eta hari erakunde onuradunaren ziurtagiri bat erantsi beharko zaio, azalduz ezen dagokion langileen nomina transferentzia horren kontura dagoela ordainduta eta adieraziz zein zenbateko dagokion langile bakoitzari aurkeztutako hileko bakoitzeko.

Ez da beharrezkoa izango banku erakundearen edo enpresa hornitzailearen zigilua, berariaz aipatzen direnetan izan ezik.

Ez da onartuko banku ordainagiririk, baldin eta ordainagiri horrek ez baditu argi eta garbi jasotzen enpresa eskatzaileak hornitzaileari faktura ordaindu diola.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2025erako edo 2026rako (zein den faktura bakoitzaren data) indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa, edo haren kontrabaliao atzerriko dirutan.

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

Jarduera egin ondoren, edozein aldaketa gertatzen bada gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatuan aurkeztu eta jasotako datuetan, eta aldaketa horrek eskaeran aurkeztutakoekiko aldaketa badakar, eta datu horiek dirulaguntza kalkulatzeko oinarritzat hartu baziren, berriz kalkulatu da dirulaguntza, deialdiaren 8. artikuluan jasotako irizpideekin bat etorritik, eta ezin izango da inolaz ere hasieran emandakoa baino handiagoa izan.

7. Deialdi honetan eskatutako agiriren bat falta bada egiaztagirien artean, errekerimendua egingo zaio interesdunari hamar egun balioduneko epean hutsa zuzendu edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Likidazioa espeditentean diren dokumentuen arabera izapedituko da.

8. Nolanahi ere, Kultura eta Kirol Sailak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du, aurkeztutako justifikazioa behar bezala ulertu eta ebaluatzeko.

9. Diruz lagundutako jarduerarekin lotura zuzenik ez duten eta oinarri hauetan xedatutakoaren arabera zeharkako gastutzat hartu ezin diren gastuak justifikazio kontuan sartzeak, nolanahi ere, gastu horiek diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbaketatik kanpo uztea ekarriko du. Berdin jokatuko da deialdi honen 4.9 artikuluan arabera berariaz diruz lagundu ezin diren gastuekin, baldin eta justifikazio kontuan sartzen badira 4.5 artikuluan diruz lagundu daitezkeen kontzeptuetako batean.

Aurreko paragrafoan adierazitako arrazoiren batengatik baztertutako gastuen zenbatekoak justifikazio kontuan aurkeztutako gastu osoaren ehuneko 5 gaintzen duenean, faktore zuzentzaile negatibo bat aplikatuko zaio gastu horiek baztertu ondorengo justifikazioaren dirulaguntzaren zenbateko berriari, tarte hauen arabera:

- Ehuneko 5 baino gehiago eta ehuneko 10 arte: 0,90 faktore zuzentzailea.
- Ehuneko 10 baino gehiago eta ehuneko 25 arte: 0,80 faktore zuzentzailea.
- Ehuneko 25 baino gehiago: 0,50 faktore zuzentzailea.

Atal honetan araututako faktore zuzentzaile negatiboa dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa zehazteko araua da, eta zehapen izaerarik gabe aplikatuko da.

11. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateragarriak dira estatuko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuek jarduera edo programa berarentzat emandako beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, diruz lagundutako programaren edo programen kostua gainditzen ez badu.

12. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak

1. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek betebeharrak hauek dituzte, deialdi honetan, eta Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak norgehiagoka bidez emango dituzten dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretan, eta Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei eta transferentziei aplikagarri zaien araudian jasotakoek gainera:

- Dirulaguntza jasotzeko oinarritzat hartu zen jarduera egitea.
- Dirulaguntza eman duen erakundeari jarduera horiek egin direla egiaztatzea, bai eta dirulaguntza emateko edo dirulaguntza jasotzeko betekizun edo baldintzak betetzen direla ere.
- Dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarren bat, subjektiboa zein objektiboa, aldatu bada, aldaketaren berri eman behar diote dirulaguntza emanda duen erakundeari.
- Dirulaguntza eman duen erakundearen egiaztapen jarduerak onartzea, bai eta Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak kontrol ekonomiko eta finantzariarako eta kudeaketarako egiten dituenak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren legerian eta beste erakunde eskudunen legerian xedatutako bestelako jarduerak ere.
- Diruz lagundutako jarduerak egiten dituzten eta adingabeekin ohiko harremanak edukitzea eskatzen duten langile kontratatuek eta/edo boluntarioek Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa dutela egiaztatzea. Era berean, berehala aplikatzea Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Era Integralean Babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren V. tituluko II. kapituluan xedatutakoa, sortutako aurrekariak baldin badaude Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Zentralean.
- Dirulaguntza ematen duen organoari jakinaraztea nazioko edo nazioarteko beste edozein administrazioek edo erakunde publikok edo pribatuk helburu bererako dirulaguntzak edo laguntzak eman dizkiola, bai eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan izandako aldaketak ere. Horien guztien berri izan eta berehala egin beharko da jakinarazpena, eta, nolahi ere, jasotako funtsen erabilera justifikatu baino lehen.
- Arabako Foru Aldundiaren finantzaketa berariaz adieraztea diruz lagundutako jarduera guztietan, baldin eta zabaldu, hedatu edo argitaratu behar badira. Horretarako, <https://web.araba.eus/eu/foru-aldundia/erakundea/marka> helbidean ezarritako Arabako Foru Aldundiaren komunikazio marka erabiliko da.
- Hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionez, honako ohar hauek betetzea:
 - Bi hizkuntza ofizialetan argitaratutako dira diruz lagundutako jarduera edo ekitaldiari zabal-kundea emateko liburuxkak, kartelak nahiz beste edozein euskarri. Euskara hutsean argitaratu ahal izango dira jarduera edo ekitaldiaren helburua euskararen sustapena bada.
 - Diruz lagundutako jarduera edo ekitaldia zein hizkuntzatan izango den zehaztuko da hura zabaltzeko liburuxketan, karteletan nahiz beste edozein euskarritan.
 - Diruz lagundutako jarduera edo ekitaldietan euskararen erabilera bermatu beharko da, gutxienez, aurkezpenetan eta agurretan; lehenengo euskaraz egingo da, eta gero gaztelaniaz.
 - Diruz lagundutako jarduera edo ekitaldiaren hartzaileak haurrak edo gazteak badira, dirulaguntzaren onuradunek euskaraz zein gaztelaniaz egiteko aukera bermatu behar diete parte hartzaile horiei.

– Hizkera ez-sexista erabiliko da egiten diren agiri guztietan, bai eta aurkezpenetan, ahozko komunikazioan eta komunikazio sinbolikoan ere, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina onartzen duena martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua betez. Aipatutako Legeari jarraituz, argitaratzen diren irudietan ezingo dira pertsonak erakutsi, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu objektu soil gisa, estereotipo sexistak saihestuko dira eta bultzatuko da aniztasuna sexuetan, roletan eta genero identitateetan.

2. Ezarritako betebeharrak horiek nahiz indarrean dagoen legerian ezarritako edozein betebeharrak ez betetzeak dirulaguntza azkentzea ekar dezake, eta ordura arte jasotako zenbatekoak itzuli beharra.

3. Datu faltsuak eman edo datuak ezkutatzuz gero, eta dirua dirulaguntzen esleipen erabakian jasotako helburuetarako ez diren beste helburu batzuetarako erabiliz gero, bai eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 13. artikuluan adierazitako kasuekin aldiberekotasuna gertatuz gero ere, emandako dirulaguntzen ordainketa agindua eten egingo da, eta hala dagokionean, ordaindutako dirulaguntzak itzuli beharko dira. Gainera, arrazoi horientzat eska daitezkeen erantzukizunak ere bete beharko dira.

13. artikulua. Publizitatea

1. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

2. Era berean, Arabako Foru Aldundiaren web orrian ere jarriko da ikusgai: www.araba.eus.

14. artikulua. Erantzukizunak

Erakunde onuradunek beren gain hartzen dute deialdi honen xede diren jarduerak egitearen ondoriozko erantzukizunak, eta haiek egin ahal izateko indarrean dagoen legediak eskatzen dituen baimenak eskatuko dituzte.

15. artikulua. Interpretazioa

Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak ebatziko du deialdi honen interpretazioaren inguruan sortzen den edozein zalantza.

16. artikulua. Aplikatu beharreko araudia

Honako hauek arautuko dute deialdi hau:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzena.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duena.
- 3/2023 Foru Araua, urtarrilaren 25ekoa, Aurrekontuei buruzko Arau Orokorra.
- Aurrekontua Gauzatzeko Foru Araua, indarrean dagoena ekitaldi honetarako.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta aplikatzekoa zaion gainerako araudia.
- 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina onartzen duena.
- 3/2025 Foru Dekretua, otsailaren 4koa. Onespina ematea Arabako Foru Aldundian hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideei.
- Aplikatzekoa den beste edozein.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.araba.eus


Memoria. I. eranskina Memoria. Anexo I

EMAKUMEEN KIROLA LAGUNTZEKO DIRULAGUNTZA - 2026 AYUDA AL DEPORTE FEMENINO - 2026

EMAKUMEEN KIROLA LAGUNTZEKO DIRULAGUNTZA - 2026 AYUDA AL DEPORTE FEMENINO - 2026			
Eskatzailea / Solicitante			
JARDUERARI EDO PROGRAMARI BURUZKO DATUAK / DATOS DE LA ACTIVIDAD-PROGRAMA			
Jardueraren/Programaren izena Nombre de la actividad/programa			
Instalazioa eta tokia Instalación y lugar			
Datak Fechas			
Jardueraren hartzaileak (biztanleria mota eta adinak) Colectivo destinatario de la actividad (tipo de población y edades)			
Ikuspegi intersektionala izanez gero, adierazi Jardueraren kolektibo hartzaileak En caso de tener perspectiva interseccional, indicar los diferentes colectivos destinatarios de la actividad			
Beste erakunde laguntzaile batzuk Otras entidades colaboradoras			
PARTE HARTZEARI BURUZKO DATUAK / DATOS DE PARTICIPACIÓN			
	Emakumeak Mujeres	Gizonak Hombres	Guztira Total
Parte hartzaileen edo onuradunen kopurua, guztira Nº Participantes o personas beneficiarias total			
Kolektibo hartzaileko parte hartzaileen edo pertsonen kopurua Nº participantes o personas del colectivo destinatario			
Kirolari eskolarrek diren partehartzaile kopurua Nº participantes que sean deportistas escolares			
BESTE DATU BATZUK / OTROS DATOS			
	Emakumeak Mujeres	Gizonak Hombres	Guztira Total
Erakundearen Zuzendaritza Batzordeko/Gobernu Organoko pertsona kopurua Nº Personas de la Junta Directiva/Órgano de Gobierno de la entidad			
Programako/jarduerako langile kopurua Nº personas trabajadoras en el programa/actividad			
Programako/jarduerako boluntario kopurua Nº personas voluntarias en el programa/actividad			
EGINDAKO JARDUEREN DESKRIKAPENA / DESCRIPCIÓN DE LAS ACTIVIDADES DESARROLLADAS			
HIZKUNTZEN ERABILERA JARDUERAN / USO DE LOS IDIOMAS EN LA ACTIVIDAD			
HELBURU OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK BETETZEA / CUMPLIMIENTO DE OBJETIVOS GENERALES Y ESPECIFICOS			

* Memoria honekin batera, diruz lagundutako programa edo jardueraren dokumentazio grafikoa, fotografikoa edo ikus-entzunezkoa erantsi behar da (programak, iragarki karteak, liburuxkak, argazkiak, bideoak edo antzekoak).
* Junto con esta memoria, se ha de adjuntar documentación gráfica, fotográfica o audiovisual del programa o actividad subvencionada (programas, carteles anunciadores, folletos, fotografías, vídeos o similares).

Kultura eta Kirol Saila
Departamento de Cultura y Deporte

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Emakumeen kirola laguntzeko dirulaguntza</p> <p>III. eranskina</p>	<p>2026</p>
	<p>Subvención de ayuda al deporte femenino</p> <p>Anexo III</p>	

Kultura eta Kirol Saila
Departamento de Cultura y Deporte

Kirol Zerbitzua
Servicio de Deporte

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

DECLARACIÓN RESPONSABLE

Entitatearen izena Nombre de la entidad

ADIERAZTEN DU

DECLARA QUE

Aurkeztutako datuak egiazkoak dira eta horiek baieztatzeko behar diren egiaztagiri guztiak emango ditu; gainera, eskaera aztertzeko eskatzen zaion informazio osagarri guztia aurkezteko konpromisoa hartzen du.

Los datos presentados son ciertos y se comprometo a facilitar las comprobaciones necesarias para verificar los mismos y a aportar toda la información complementaria que se le solicite con el fin de analizar su solicitud.

Espedienteari erantsitako fitxategiak jatorrizkoen irudi fidela dira, jatorrizkoak elkartearen esku daude eta Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko ditu, hala eskatzen zaionean.

Los ficheros que se incorporan al expediente son imagen fiel de los originales, que éstos obran en su poder y que los pondrá a disposición de la Diputación Foral de Álava cuando así sea requerida.

Justifikazio-kontuan bakarrik sartu dira diruz lagundu daitekeen jarduerari dagozkion gastuak, edo, zeharkako gastuen kasuan, zuzenean erlazionatuta egon gabe jarduera kudeatzeko eta administratzeko beharrezkoak diren gastuak.

Se han incorporado en la cuenta justificativa única y exclusivamente gastos relativos a la actividad subvencionable o, en el caso de los gastos indirectos, gastos que sin estar directamente relacionados son necesarios para la gestión y administración de la actividad.

.....
(Lekua eta data Lugar y fecha)


Sinadura Firma

Entitatearen zigilua Sello de la entidad

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jaso den funtsezko edozein datu edo informazio zehatza ez bada, faltsua bada edo falta bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena edo adierazitakoa betetzen dela egiaztatzen eskatzen den dokumentazioa edo komunikazioa, ezingo da jarraitu dena delako eskubidea

La inexactitud, falsedad u omisión, de carácter esencial, de cualquier dato o información que se incorpore a una declaración responsable o a una comunicación, o la no presentación ante la Administración competente de la declaración responsable, la documentación que sea en su caso requerida para acreditar el cumplimiento de lo declarado, o la comunicación, determinará la

1/2

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Alava www.araba.eus</p>	<p>Emakumeen kirola laguntzeko dirulaguntza III. eranskina</p> <p>Subvención de ayuda al deporte femenino</p> <p>Anexo III</p>	<p>2026</p>
--	--	--------------------

Kultura eta Kirol Saila
Departamento de Cultura y Deporte

Kirol Zerbitzua
Servicio de Deporte

baliatzen edo jarduera gauzatzen, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, betiere horren ondorioz sor daitezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak alde batera utzi gabe (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

imposibilidad de continuar con el ejercicio del derecho o actividad afectada desde el momento en que se tenga constancia de tales hechos, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar (Artículo 69.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas).